

Kepa Gallego

Eingo al deu?

MUTILA: Ez, euskaldun gazteok, ez gaude, ez, lo. (Eseri egiten da, publikoari begira)
Joño, joño, joño.. Sexua aipatu, eta teatroa gainezka. (Zigarro bat pizten du) Ai, ai, ai!
(Errieta gaiztoa) Zuek ez zatoztela komedia ikustera, biziosillos! Hay ke joderse! (ikusle bati) Zer? Orgia ta desenfrenoa ikusiko zenuelakoan? Begira, eljodioporkulo. Hiru euro ordaindu, eta Sodoma eta "Gamarra" nahi du. (Gainontzeko ikusleei) Dena den, ongi etorri. Ba, bai. (Patiora jaitsiz) Iran ere, sexuaz hitz egingo dugu. (Neska bati) Hitz egin esan dut, politte; izterrak banatu ditzakezu. Erlajatu! Horrela, bai. Erabili, ez duzu erabili egingo, baina gutxienez, "tortoliak" ez dizu usaina hartuko. Zaude lasai. Hemen ez zaizu ezer gertatuko. (Tejoa) Beno, nahi ez duzun ezer, noski. (Ondoan duen mutilari begira) Alboko gauza XXX honi zure... sponsorra al da? (Bai/Ez) Esan baietz. Sexuari buruzko jardunetara, badaezpada ere, lan-tresnarekin etorri behar da. Gainera, komediarekin aspertzen bazara, hemen berotzen hasi, eta gero etxean errematatzen duzu. (Kondo bat atera, traszendente) Egin ala ez egin, hortxe dago gakoa! (Ikusle bati ematen dio) Osasunez urratu! Beno, ez, hobe urratzen ez bada. Aspaldi, oso aspaldi, Barakaldon euskaraz egiten zenean... baten batek, zera esan omen zuen: "Bere historia ezagutzen ez duen Herria, hura errepikatzen kondematuta dago" (Esaidiaren efektua neurtuz) Esaldi borobila, inondik ere. Baina, eta hona hemen nire galdera: zer gertatzen da bere Historia sexuala ezagutzen ez duen Herriarekin, um? Euskal Herrian, zoritxarrez, ez dugu "Mastermendieta" edo "Jhonsongoitia" bat eduki. Eta, ezin esan Euskal Telebistak gauza handirik argitzen digunilk! Dokumental piiloa ematen du, honi bai.... Dagoeneko, makina bat aldiz ikusi dugu nola egiten duen Afrikako lohoiak, Sabanako jirafak, Galapgoetako galapagoak, bale urdinak, Amazonaseko gorila erraldoiak... Eta hori guztia oso ondo dago. Ez egin dudarik. Oso, oso ondo. (Larri) Baina, eta gu, zer? Nola jakin, nola asmatu zer gertatu den izara guztien azpitik eta koltxoi guztien gainetik? Nori galdetu?

(Lasaiago) Hainbat alorretan, abadeak, praileak... Enfin, elizgizonak izan dira gure kultura, hizkuntza eta tradizio zaharren "bortxaezineko" gordelekua. Baina, ez dut uste gai honi buruz lehen eskuko iritzi fidaganifik edukiko dutenik... (Deabru) Ala bai? (Traszendente) Nondik gatoz? Nora goaz? Agian, Aitorren seme-alabak garenok, esporen bitartez ugaltzen gaga, perretxikoak bezala?

Egia izango ote da txikitan, titikumeak ginenean, azaltzen ziguten azalore edota zikoinaren kontu hori? Euskaldunok, bene-benetan "eitten al deu?". Demokratikoki



hautatutako Lehendakani batek, egiten al du? Are ta gehiago, Lehendakani batek, BETE emazte propioarekin egiten du? (Kabroi) imaginatzen duzue? (Eskenatokira bueltatuz) (Animatuago) Tira, lagun artean gaude ta. Benga, konfidantza osoarekin. Altxa dezala eskua, hilean behin baino gehiagotan egiten duenak. (Publikoari begira, zenbatuz, edo) Aurrera, beldunnik gabe. Bi... lau... zortzi... Malooo!
(Egunkari orri bat atera eta irakurriz) "Euskaldunok astean behin egiten omen dugu".
Estatistikek ez dute gezurrik esaten. (Maltzur) Argi ibili, gero, e! Baten bat zuei dagokizuen kopuruaz aprobetxatzen ari da.